

Liburu protokanonikoak

Bibliako liburua dira, kanonaren eraketatik bertatik inspiratutzat edo gogargituztat hartutakoak eta kristau-Eliza guztiek halakotzat dauzkatenak.

Ik. Biblia; Idazteunaren kanona.

Liburu santuak

Sin.: Idazteunak; Idazti santuak

Hizkuntza guztietako literaturan erlijio-jenerokoak (ik. Erlijiozko literatura) eduki duen garrantziaz gain, hizkuntza idatziaeren beraren edo idazpenaren sorrera erlijiozkoari oso lotuta egon da gehienetan, idazpenaren arteak berak erlijiozkoaren adiera hartzeraino, eta idazpenari indar magikoa egozteraino batzutan.

Liburudun erlijioa deitzen dute, bere sinesteak, *erritoak, *mitoak, aginduak, etab. oinarritzko testu idatzitan ipinita eta finkatuta dauzkana. Baina idazteunaren kontzeptua hertsia da, hala ere, erlijioen fenomenologian. S. Paulok Bibliari emandako deituratik hartu dute, eta beste erlijiotara zabaldu.

Erlijio bakoitzak errebelatutzat eta sakratutzat dauzkanak dira liburu santuak: horiek izan ohi dira erlijiozko sinesbidearen, ihardunbidearen eta *arabidearen iturria eta oinarria. Liburu santuen balioari eta erabilerari buruzko irakatsiak ezberdinak izan ohi dira erlijio batetik bestetara, baita erlijio bakoitzeko *Konfesio edo Eliza ezberdinen artean ere, baina funtsean eta definizioz arau-balioa izan ohi dute, eta Kanonean finkatzen dira idazteuntzat hartutakoak. Horregatik, liburu santuen testu jatorrikoa aldatu eta nahasi gabe gordetzea garrantzizkoa da.

Horiek jatorriz idatzi zireneko hizkuntza ere sakratutzat hartzen dute sarritan, eta horien itzulpenerako eragozpen teologikoak jartzen dituzte, hizkuntzako eta kulturazko zailtasunak aparte. Guzti horrek ekarri izan du erlijio-elkarteetan Liburu santuetan jakitun berezituak direnak edukitzea (exegetak, teologoak, etab.), batzutan horiek benetako *kastak eratzeraino.

Eliza Katolikoa ere zenbait mendetan Biblia herri-hizkuntzetara itzultzearen kontrakoa izan zen, *Erreforma protestanteak beldur eta eragozpen horiek hautsi zituen arte. Hala ere *Kontrarreforma katolikoak luzaroan eutsi zion artean bere jokabideari. Gaur, berriz, erabat alderantzizkoa da jokabidea: hau da, *fededun guztien eskuetan Biblia herri-hizkuntza ulergarritan jartzea eta horien erabilera zabaltzekoa.

Fededun bakoitzaren fedea eta erlijiozko bizia oinarritzeko, mantentzeko eta bizkortzeko ezezik, erlijio-elkartearen bileratan eta *erlijiozikunetan irakurri eta iruzkindu ohi dituzte liburu santuak.

Liburu santuen jainkozkotatua era ezberdinez ulertu ohi dute: Jainkoak berak gizakiei eskuetara emanak bailira; Jainkoak idazleari hitzez hitz iradokiak bailiran; Jainkoak era traszendentez gogargitu eta inspiratuak bailiran. Dena dela, beti aitortu ohi diote liburu santuen nolabaiteko autoretasuna Jainkoari. Kristautasunak, era berean, benetako autoretasuna eta erantzuletasuna aitortzen dizkie Bibliako liburuen idazleei.

Hauek dira erlijio ezberdinetako idazti santuen bilduma nagusiak: *Itun Zaharra eta *Itun Berria (kristautasuna); Itun Zaharra eta *Talmud-a (judaismo ortodoxoa); *Korana (islamismoa); *Avesta (parsismoa); *Veda eta *Bhagavadgita (hinduismoa); *Adi-granth (sikhisismoa); *Tripitaka (*Hinayana budismoa); Mormonen liburuak (*mormoiak).

Kanoneko idazteun errebelatuak eta beselako erlijiozko liburu funtsezkoak ez dira nahastekoak, nahiz eta azken hauek ere oso garrantzizkoak izan.

Ik. Agerkundera; Inspirazioa; Idazteunaren kanona; Idazteuna(k); Biblia; Hermeneutika; Liburu-erlijioa.

Paulo Agirrebaltzategi

Liburu-erlijioa

Liburudun erlijioa ere esaten da. Badira erlijio batzuk, bereziki liburu santutan oinarritzen direnak eta horiei garrantzi, itzal eta adetasun aparteak eskaintzen dizkietenak: hala nola, *hinduismoa, *judaismoa, *kristautasuna, *islamismoa.

"Liburuaren erlijioak" izendatzen dira bereziki Bibliatik ("Liburutik") sortu edo Bibliarekiko lotura berezia duten hiru erlijio monoteista handiak: Judaismoa, kristautasuna eta islamismoa. Islamismoaren *idazteuna Biblia ez bada ere, *Koranak haren eragin handia duela uste dute jakitunek.

Ik. Liburu santuak; Biblia.

Likitsa

Ik. Garbia/Lohia.

Liluragarria, misterio

Ik. Misterio liluragarria.

Limosna

Sin.: Amoina; Karitatea